



KULTUR

2016 EKAINAK 17 · IRAILAK 10



cultura
navarra.es

LG NA 1163-2016

KULTUR

2016 EKAINAK 17 · IRAILAK 10

KULTUR Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren programa bat da.

Jarduera-programa, musika, dantza eta arteko era askotako programazio zabalarekin uda guztian zehar garatzen da.

Ekainaren 17a eta irailaren 10a bitartean, ostegunak, ostiralarak eta larunbatak Kultur protagonista aparta izango dute.

Arte plastikoak eta, nagusiki, pintura nabarmentzen dira Kultur programaren eskaintza artistikoan, hiru erakusketa interesgarri egingen baitira Agoitzen, Bertizko Jauregian eta Corellan. Corellan, uztailaren 1etik 31ra, Álvaro Gil eta Natacha Sansoz egonen dira; Bertizen, uztailaren 20tik irailaren 4ra, Maite Ortegak erakutsiko du bere lana; eta Agoitzen, abuztuaren 4tik 31ra, Pep Carrio artistaren lanen erakusketa egingen da; udako egunetarako bestelako aukera bat izanen dira, beraz, hiru pintura-erakusketa horiek.

KULTUR

2016 EKAINAK 17-1R AILAK10

UZTAILA

7 OG.	8 OR.	9 LR.
ZUGARRAMURDI IZARRAK Sorginen leizea* 18:00	ORBAIZETA KELTIAR Pilotalekua 19:30	ORREAGA/ RONCESVALLES AURIZBERRIKO AUZPERRI ABESBATZA Kolegiatako eliza 19:00

ABUZTUA

4 OG.	5 OR.	6 LR.
OTSAGABIA CORQUIÉU Plaza 22:00	ELIZONDO MEETING POINT FUERADELEJE Foruen plaza 21:00	LIZASO HUTSUN TXALAPARTA TALDEA Orgiko hariztia 12:30

IRAILA

1 OG.	2 OR.	3 LR.
LODOSA KORRONTZI Espainia plaza- Pasealekua 20:00	AGOITZ SHIBA Kultura Etxea 22:00	LA OLIVAKO MONASTERIOA BURLATAKO SAN BLAS ABESBATZA Eliza 19:00

EKAINA

17 OR.	18 LR.
TAFALLA VENDETTA Nafarroa plaza 22:00	LEITZA HESIAN Plaza 22:00

14 OG.	15 OR.	16 LR.
ERRIBERRI GELAJAUZIAK (FRAGMENTS) KUKAI Karlos III.a plaza 20:00	ESTELLA-LIZARRA ELLAS DAN LA NOTA San Joan plaza 21:00	ALTSASU/ ALSASUA NORA EZEAN LARRAIZA DANTZA TALDEA Kultura etxea 21:00

11 OG.	12 OR.	13 LR.
VIANA NAT SIMONS San Pedroko hondakinak 20:30	IZABA PRINTZESA ZELTA EUSKAL HERRIKO TXISTULARI ELKARTEA Anfiteatroa 20:30	XAVIER IÑAKI DIÉGUEZ Auditorioa 12:00

8 OG.	9 OR.	10 LR.
ETXARRI ARANATZ JO & SWISS KNIFE Plaza 19:30	SAN ADRIAN BONI Frutuoso Muerza plaza 22:00	TUTERA TRAVELLING' BROTHERS BIG BAND** Gaztambide Antzokia 20:30

UZTAILA

23 OG.	24 OR.	25 LR.	30 OG.	1 OR.	2 LR.
ARGUEDAS THE MODERN SOUL GANG Tinglado plaza 21:00	OLAZTI ARDANFUSIÓN Sarasate plaza 20:00	UXUE TAFALLAKO REY SANCHE ABESBATZA Andre Maria Eliza 18:00	MARTZILLA COMPAÑIA DE FLAMENCO AGUSTÍN BARAJAS Gaztelua 20:00	FITERO DE 2 EN BLUES BAND Malvas plaza 21:00	ERRONKARI BRINCADEIRA Pilotalekua 20:00

21 OG.	22 OR.	23 LR.	28 OG.	29 OR.	30 LR.
CORELLA THE CLAMS Foruen plaza 21:30	BERA ANIMAL BLUES Foruen plaza 21:00	MENDIGORRIA ANAU Foruen plaza 21:00	RIBAFORADA LA REINA FLOWER Caballeros Templarios (Sakana) 22:00	LEKUNBERRI THE GOOD TIME ROLLERS Plaza 20:00	LOS ARCOS NAHEBA Plaza 21:00

18 OG.	19 OR.	20 LR.	25 OG.	26 OR.	27 LR.
GARES THE ICER COMPANY Mena plaza 20:30	ZANGOZA PINK TONES Arcadas plaza 23:00	IRANTZUKO MONASTERIOA CORAL IN TEMPORE ABESBATZA Eliza 12:00	DONAMARIA J.J.Q HIRUKOTEA Jauregia dorrea 20:00	ARTAXOA FETEN FETEN Quinta parkea 20:30	LEIREKO MONASTERIOA AIEGIKO CAMINO DE SANTIAGO ABESBATZA Eliza 19:45

ERAKUSKETAK:

CORELLA AZAL BERRIA Álvaro Gil eta Natacha Sansoz
Kultura Etxea / uztailaren 1etik 31ra

BERTIZ LORATEGI BAT LORATEGIAN Maite Ortega eta Mikel R. Nieto
Bertizko Jaurerriaren parke naturalean / Lorategi historikoa / uztailaren 20tik irailaren 4ra arte

AGOITZ MARRAZ BESTALDEAN Pep Carrió
Kultura Etxea / abuztuaren 4tik 31ra

*Zugarramurdi / leizera sartzeko prezioa: 4€

**Tutera / prezioa: 10€ anfiteatroa, 12€ platea
Sarreraren salmenta: ticketmaster.es / www.castelruiz.es eta antzokian kontzertua hasi baino ordu bete lehenago



17 OSTIRALA

VENDETTA

TAFALLA / 22:00 / NAFARROA PLAZA

Vendetta izanen da protagonista Tafallan eskainiko den kontzertu horretan, eta, beti bezala, euskara, gaztelania, Ska eta Rocka batuko ditu. Taldeak *Fuimos, somos y seremos* (*Atzo, gaur eta bihar*) diskoko kantekin girotuko du Nafarroa plazan, Ska, Rocksteady, Reggae eta Rock asko eta asko eskainita. **Vendettaren** alaitasunak eta konpromisoak hego-haizea ekarri nahi dute hotz handiko garai hauetan. Eta, horretarako, *Udarako gau luzeak*, *Botella de ron* edo aurreko diskoetako *Puro infierno*, *Volar*, *Alerta* edo *Begitara begira* kantuez baliatuko da, besteak beste.

18 LARUNBATA

HESIAN

LEITZA / 22:00 / PLAZA

"2006ko udaberrian abiatu genuen proiektu hau Etxarri Aranazko

(Nafarroa) entsegu-lokal batean, besteak beste Rancid, Blink 182 eta No use for a name taldeen bertsioak eginez. Pixkana-pixkana, tema propioak konposatzen ere hasi ginen. Uda horretan bertan eman genuen gure lehen kontzertua, Etxarriko gaztetxean. Ordutik egundaino, 400 kontzertutik gora eman ditugu bai Euskal Herrian bai Euskal Herritik kanpo (Catalunya, Madril, Londres, Milan...) eta 5 disko argitaratu ditugu, estudioan grabatutakoak (*Maite Dugu*, 2007; *Herriaren Oihua*, 2008; *Borrokatu eta irabazi*, 2010; *Hitzetik*, 2011; *Hegalak Astinduz*, 2014), bai eta zuzenean grabatutako CD/DVD bat ere (*Hemen eta Orain*, 2013). Zortzi kidek osatzen dugu Hesian taldea, eta, une honetan, guztiz murgilduta gaude *Hegalak Astinduz* biran, mota guztietako aretoak, plazak, jaialdiak edo dena delakoak astindu nahi ditugulako!"

17^{OR.}

TAFALLA

Bisita gidatua Tafallako alde historikora

18:30 / 1 h. 30'

Andre Maria elizaren kanpoaldea

Prezioa: doakoa

Parte-hartzaileak: 50

Erreserbak:

Guiarte Servicios

Turísticos

T. 948 741 273

info@guiartenavarra.es

18^{LR.}

LEITZA

Bista gidatua Peru Harrira

11:30 / 2 h.

Peru Harri baserria

Prezioa: helduak 4€

/ haurrak 3€

Parte-hartzaileak: 15

Erreserbak:

Iñaki Perurena

T. 659 701 045

peruharri@hotmail.com

EKAINA



23 OG.

ARGUEDAS

Bisita Arguedasko etxe-kobetara

19:00 eta 19:30 / 30'
Arguedasko autokarabana-aparkalekua
Prezioa: doakoa
Parte-hartzaileak: 15
Eza da gomendagarria mugikortasun-urriko pertsonentzat

Pintura-erakusketa

19:30 eta 21:30 / 30'
Tinglado plaza
Prezioa: doakoa

Erreserbak:
Udala. Kulturgunea
T. 948 830 005
arguedas@arguedas.es

24 OR.

OLAZTI

Paseoa Urbasatik: "Baso xarmatua"

15:00 / 3 h. 30'
Urbasako Parkeko informazio-gunea
Prezioa: 10€
Parte-hartzaileak: 15
Trekking oinetakoak, arropa eroso, ura

Erreserbak:
Mirua
T. 608 560 369
info@mirua.com

ARRUATZU

Bisita eta dastaketa
Albi gaztandegian

11:00 / 2 h. 30'
Prezioa: helduak 6€, haurrak 4€
Parte-hartzaileak: 20
Arropa eroso

Erreserbak:
Albi Gaztandegia (Aritz)
T. 681 083 409
bisitak@albigaztak.com

25 LR.


UXUE

Ezagutu Uxue: Artea eta Gastronomia

17:00 / 1 h.
Puerta de la iglesia
Prezioa: 6€ (10 urtetik beherakoak: doan)
Parte-hartzaileak: 50
Oinetako erosoak, prismatikoak. Urrutia markako pastak dastatuko dira.

Erreserbak:
Dinamic Eventos
T. 618 820 414
visitaujue@gmail.com

EKAINA



23 OSTEKUNA

THE MODERN SOUL GANG

ARGUEDAS / 21:00 / TINGLADO PLAZA

Soul musika egiteko eta hartaz ikaragarri gozatzeko asmoz, The Modern Soul Gang taldearen soinu-koordinadak seentiek dira sixtieak bainoago, soul leun-leuna, epela, sentsuala eskaintzen baitute, groovez betea eta jazz eta funk musiken eraginekin. Asmoa garbi dago: entzuleek esperimintatzea Soul musikaren energia eta erritmoa, baita melodia handien emozioa eta estasia ere, eskarmentu handiko abeslari sutu baten ahotsaren bitartez; horri laguntzeko, korista izugarri on bat eta Jazz munduan oso ezagunak diren musikari bikainak izanen ditu ondoan.

24 OSTIRALA

ARDANFUSIÓN

OLAZTI / 20:00 / SARASATE PLAZA

Lau musikarik osatzen dute taldea. Ahotsa (Montse Zabalza) eta instrumentu-jotzaileak (Francisco Herrero, Joseba Loinaz eta Txema Garcés) aritzen dira taldean, zenbait musika-estilo fusionatu eta berezko bat sortzeko asmoz. Haiek egindako temak joko dituzte, baita bertsoak ere: Brel, Leonard Cohen, Mikel

Errazkin, Imanol... Testuek ere badute garrantzia: Mikel Arregi, Lorca, japoniar kulturaren aipua (Haikuak).

25 LARUNBATA

TAFALLAKO REY SANCHO ABESBATZA

UXUE / 18:00 / ANDRE MARIA ELIZA

Rey Sancho abesbatza Tafallako Antso III.a Handia BHI institutukoa da. Heziketa proiektu bat da, kantuen eta abesbatzako diziplinaren bidez musika heziketari ekiten diona. Gure jarduera guztiak gure ikasleen prestakuntza integral edo osora bideratuta daude, benetako bizitzako edozein egoeratan moldatzeko aukera izan dezaten. Gure jarduera gehienak Tafallan bertan garatzen badira ere, Nafarroako Abesbatzen Federazioarekin eta Espainiako Federación Española de Pueri Cantores delakoarekin gauzatzen dugun elkarlanaren bidez, gure ahotsak hainbat tokitara eramateko aukera izan dugu: Atarrabiara, Iruñera –Baluarte auditoriumean egin genuen emanaldia, Nafarroako ALCER federazioaren aldeko ongintzako kontzertu batean–, Stockholmera, Granadara, Murtziara, Oviedora... Duela gutxi, Pueri Kantarien Nazioarteko Biltzarraren XL. Edizioan parte hartu dugu, joan den urteko abenduan, eta Santo Domingo de la Calzadan.





30 OSTEGUNA

AGUSTÍN BARAJAS KONPAINIA FLAMENKOA

MARTZILLA / 20:00 / GAZTELUA

Egungo flamenko gaztearen gaineko ikuspegi eguneratua eskaintzen du ikuskizun horren bidez. Orain arteko ibilbide profesionalaren balantze bat egiten du: agertokietan bizitakoak, ikasitako eta egindako guztia, baita maisuek eta etapek harengan utzitako arrastoa ere. Flamenko garbienetik abiatzen da, Granada eta Andaluziako sustraletatik, eta estilizazio eta folkloretik iragaten da, betiere koplaren airea ahaztu gabe, garrantzi handia hartu baitu bere azken etapa profesionalean. Hori guztia bildu eta aurkezten du formatu intimu horretan, eszenaratze dotore eta zorrotz batean, zuzeneko musikariak lagun.



1 OSTIRALA

DE 2 EN BLUES BAND

FITERO / 21:00 / MALVAS PLAZA

Seikote bat da De 2 En Blues Band

(baxua; bateria eta koroak; gitarra bakarlaria; gitarra erritmikoa, harmonika eta koroak; teklatuak eta Hammond organoa; eta ahots nagusia eta tambourrinea), esperientzia musikal handia duena; afroamerikar musika eta Rhythm&Blues, Soul eta Rock&Roll musika, eta bereziki Bluesa –bere handitasun guztiarekin– dituzte gustuko, eta haiekiko zaletasun bizian oinarritzen dira. Bandaren lanak gozamina du helburu, bai musikariena beraiena, bai entzuleena, batez ere zuzeneko emanaldietan; horretarako, afroamerikar musikaren espektro zabal baten tema handiak interpretatzen eta bitzitzen dituzte, ez beti ezagunenak. Hainbat agertoki eta jaialditan hartu du parte: Donostiako Jazz jaialdia, 2011n eta 2013an; Jazzfermin, 2012an; Elorrioko Jazz jaialdia; Burlata, Elorrio eta Zizurkilgo Blues jaialdiak; Música y Ritmo jaialdia, Aragoin; eta abar.

2 LARUNBATA

BRINCADEIRA

ERRONKARI / 20:00 / PILOTALEKUA

2004an sortu zen, Bartzelonako Ciutadella parkean perkusio-topaketak egin eta gero. 11 urteko ibilbidean zehar, Brincadeira taldeak bilakaera handia izan du, batukada-talde bat izatetik gorputz-adierazpena eta musikaltasuna fusionatzen dituen perkusio-konpainia bat izatera igaro baita; horrela, mugimenduaren bidez sortzen ditu melodiak orain. Gorputz-adierazpenaren eta musikaren arteko fusio horri esker, Brincadeirak produkzio handietan parte hartzeko aukera izan du, besteak beste Brodas Bros konpainiarekin, Salvador Nieblarekin, Hansel Cerezarekin... 2015ean, goreneko unera iritsi ziren, industria musikaleko bi enpresa handiekin batera aritu baitziren: Meinlen, *endorser* gisa, eta Baarten, laguntzaile.

30 OG.

MARTZILLA

**Bisita gidatua
Martzellako gaztelura**

19:00 / 45'

Gazteluko ate nagusia

Prezioa: 3€

Parte-hartzaileak:
mugarik gabe

**Kanoa-jaietsiera
Aragoi ibaitik**

10:00-14:00 eta

15:00-19:00

/ 4 h. (jarduera: 2 h.)

Martzellako kirol-gunea

Prezioa: 27€ (6 pax

gutxienez)

Parte-hartzaileak: 15

Igeritan jakitea; 8 urtetik aurrerakoek heldu batek lagunduta egin beharko dute

Erreserbak:

Martzellako Udala

T. 948 713 545

cultura@marcilla.es

1 OR.

FITERO

**Bisita gidatua
monasteriora**

12:00 / 1 h.

Eliza atean

Prezioa: 2€

Parte-hartzaileak:
mugarik gabe

Erreserbak:

Turismo-bulegoan

T. 948 776 600

turismo@fitero.es

**Bisita Tudejen
harraparien zentrora**

17:00 / 1 h.

(Erakustaldia: 19:30)

Prezioa: 4 €

Parte-hartzaileak:
mugarik gabe

Erreserbak:

Tudején zentroa

T. 651 173 531

/ 639 011 164

jlrmos79@hotmail.com

2 LR.

ERRONKARI-BELAGUA

**Senderismoa: Larra,
leku ezezaguna**

10:00 / 4 h.

Mata de Hayako

aparkalekua. Belagua

Prezioa: 10€

Parte-hartzaileak: 20

Arropa eta oinetako

erosoak, ura,

prismatikoak

Erreserbak:

Mendikate. Oit. Roncal

T. 948 475 256

oit.roncal@navarra.es

UZTAILA



7 OG.

ZUGARRAMURDI

Bisita gidatua:
"Zugarramurdi,
zentzumen
guztietatik"

16:00 / 1 h.
Zugarramurdiko plaza
Prezioa: helduak 3,50€
y haurrak 2€ (6-12 urte)
Parte-hartzaileak: 60
Oinetako erosok. Edari
magikoa dastatuko da.

Aldez aurretik erreserbatu
eta sarrerak jaso:
Sorginen Museoa
Tel: 948 599 004
info@zugarramurdi.es

8 OR.

ORBAIZETA

Paseoa eta afaria:
Irati, ilargi-argiz

22:00 / 1 h. 30'
Orbaizetan sartzeko plaza
Prezioa: 10€
Parte-hartzaileak: 15
Berokia eta prismatikoak

Erreserbak:
Itarinatura
T. 660 268 750
itarinatura@itarinatura.com

9 LR.

**ORREAGA/
RONCESVALLES**

Bisita kolegiata-
multzora eta museora

17:00 / 1 h. 30'
Klaustroko leihatila
Prezioa: 5€
Parte-hartzaileak: 43
Eskailerak. Oztopoak
daude bidean.

Erreserbak:
Auriaorreaga
T. 670 289 997
auriaorreaga@gmail.com

UZTAILA

IZARRAK

LIVE | ZUZENEAN



7 OTEGUNA

IZARRAK

ZUGARRAMURDI / 18:00 / SORGINEN LEIZEA

Folk-talde bat da, Aldudeko (Nafarroa Beherea) lau kantari gaztek osatutakoa. 2004an, Nafarroa Behereko Kantu Txapelketan bigarren gelditu eta gero, taldearen izen bereko diskoa argitaratu zuten: *Izarrak*. Gerroago, *Biziari So* etorri zen, Niko Etxart, Itxaro Borda Philippe Albor eta Jean Louis Davant ospetsuen kolaboratzaileekin. Beste leku batzuen artean, Londres, Dublin eta Parisen aritu dira. 2012an, hirugarren lana aurkeztu zuten: *Erokeriaz*.

8 OSTIRALA

KELTIAR

ORBAIZETA / 19:30 / PILOTALEKUA

Zazpi musikarik osatzen dute Keltiar taldea orain; musikari handiak dira, urteak joan ahala eta bi disko argitaratuta -*Keltiar Aldea* eta *Goidelic* (2005

eta 2007)- mota guztietako genero musikalak fusionatzeko gauza izan direnak, betiere elementu komun bat agertu badute ere: Folk

9 LARUNBATA

AURIZBERRIKO AUZPERRI ABESBATZA

**ORREAGA/RONCESVALLES / 19:00 /
KOLEGIATAKO ELIZA**

Orreagako Kolegiatako organo-jotzaile Agustín Ezurmendía jaunak eratutako parroikia-abetesbatzetik sortu zen Auzperri Abesbatza. Begoña Almirantearena da egungo zuzendaria. Gure abesbatzak Ziordiako Jardunaldi Musikaletan ere hartu du parte, eta abesbatza-trukeak egin ditugu beste abesbatza batzuekin, hala nola Zierbena, Arrasate, Igorre eta Igantzikoekin, besteak beste. 1997tik, Musikaren Eguna ospatzen dugu, eta, horretan, bai abesbatzak berak bai musikaren zaleak diren bertako beste talde batzuk aritzen gara gure herri txikian. Herriko biztanle anitz inplikatzeko dira festa horretan, eta dagoeneko tradizio bilakatu da herrian. Apirilaren azken larunbatean edo maiatzaren lehenbizikoan ospatzen dugu.



14 OSTEGUNA

GELAJAUZIAK (FRAGMENTS) KUKAI

ERRIBERRI / 20:00 / KARLOS III.A PLAZA

Cesc Gelabert koreografoak eta Kukai Dantza konpainiak bat eginda sortu zen *Gelajauziak (fragments)*. Euskal dantza tradizionalak sakon ikertu, eta beste begirada batez aurkezten ditu. Ikuskizunak lengoia koreografiko berria eta originala erakusten du, indarrez betea eta bizi-bizia. "Dantza tradizionala dantzen ama da, eta horretaz elikatzen gara dantzariak eta koreografoak. Ekintza hori garaikidea da betiere, bere garaiarekin batera ibiltzen da. *Gelajauziak* beste katebegi bat da tradizioaren eta garaikidetasunaren arteko interakzio-kate horretan, tokiko eta hurbilekoaren eta beste kulturen artekoan".

zeharkatzen baititu; emakume artista horiek hainbat musika-estilo jorratu, batu eta tartekatzen dituzte beren artearen bitartez, hala nola Popa, Rocka, Musika Zelta eta Kopla, bere izaera garbienean. Bi orduko kontzertu handi bat, musikan ibilbide handia egina duten musikariek osatutako banda batekin; multimedia-irudiak ere eskainiko dira entzule guztiei zuzenduta dagoen emanaldi horretan. Pianoan, Iván Vázquez; baxuan, Juan Carlos Mendoza; gitarran, Raul Santana; eta, baterian, Pablo Ignacio Sainz.



15 OSTIRALA

ELLAS DAN LA NOTA

ESTELLA/LIZARRA / 21:00 / SAN JOAN PLAZA

Ikuskizun musikalak ez du inor utziko epel, ikuslearen arima eta bihotza



16 LARUNBATA

NORA EZEAN LARRAIZA DANTZA TALDEA

ALTSASU/ALSASUA / 21:00 / KULTURA ETXEA

"Goizeko 06:00ak dira, eta eguzkia ortzimugan agertzen hasia da. Haurrak eta Begoña azken gaua ematen ari dira beren oheetan Bermeoko pisu txikian; Martin jaikia da dagoeneko, eta, kafea esku artean, leihotik begira dago portu zaharraren aldera, malenkoniatsu. Negar-malko bat ari zaio masailetan behera, baina mailetak prest daude; ez dago atzera-bueltarik..."

Horrela hasten da emanaldi artistiko hori; horretan, musikariak, dantzariak eta aktoreak elkartzen dira ikuskizun eder bat eskaintzeko, ikus-entzunezko efektuak eta guzti. Lana ez da erraza izan, asko baikara obraren kideak; gogo handiz eta ekimenez, ordea, lortu egin dugu lana aurrera ateratzea.

14 OG.

ERRIBERRI

Bisita gidatua:
"Artea eta Ardoa"

18:00 / 1 h.
Ardoaren Museoa
Prezioa: 6€
Parte-hartzaileak: 20

Erreserbak:
Guiarte Servicios
Turísticos
T. 948 741 273
info@guiartenavarra.es

15 OR.

ESTELLA-LIZARRA

Bisita gidatua Lizarrara
17:00 / 1 h. 15'
Lizarrako turismo-bulegoa
Prezioa: 3€
Parte-hartzaileak: 40
Jende guztia errentzat

Erreserbak:
Navark
T. 948 550 070
visitas@navark.es

"Lizarra, Bidea Santiagora"

18:00 / 1 h. 40'
Hilobi Santuaren Eliza
Prezioa: 3€
Parte-hartzaileak:
mugarik gabe
5' lehenago iritsi

Erreserbak:
Nahiaz
T. 948 107 632 /
609 372 816 / 646 245 399

16 LR.

ALTSASU/ALSASUA

Paseoa zaldiz
Urdiain eta Altsasuko
hariztitik

10:00tik 17:30etara
/ 1-2 h.

Urdiango Errotako
baserria

(GPS: 42° 53' 44" N,
2° 08' 04" O)

Prezioa: 10€
(8 pax/paseoa)

Arropa erosoa,
praka luzeak eta
oinetako itxiak

Erreserbak:
Errotain Zalbi Ibilaldiak
T. 687 424 839
/ 626 749 149
errotain@gmail.com

UZTAILA



21 OG.

CORELLA

Bisita multzo historikora eta Arrese museora

19:00 / 1 h.
Arrese Museoa
Prezioa: doakoa
Parte-hartzaileak: 25
Arropa eroso

Bisita Corellanas upategietara

18:00 / 1 h.
Prezioa: Doakoa
Parte-hartzaileak: 25
Arropa eroso

Erreserbak:
Corellako kultura-etxea
T. 948 780 331
casacultura@corella.es

22 OR.

LESAKA

Bisita gidatua Burdinaren Museora

12:00 / 1 h.
Harriondoa kultura-etxea
Prezioa: 2€
Parte-hartzaileak: 10

Erreserbak:
Lesakako Udaleko Kultura eta Turismo Alorra
T. 948 638 007
kultura@lesaka.net

23 LR.

MENDIGORRIA

Bisita gidatua Andelos hiri erromatarrera

18:30 / 1 h.
Museo arkeologikoa
Prezioa: 2€
Parte-hartzaileak: 50
Txanoa eta ura

Erreserbak:
Guiarte Servicios Turísticos
T. 948 741 273
info@guiartenavarra.es

UZTAILA



eta gitarra), Alejandro Mingot (gitarra eta lap steela), Kike Arza (baxua) eta Dani Lizarraga (bateria).

Eskarmentu handia dute den-denek Jazz, Rock eta Souleko musikari gisa. Gaur egun, bira bat egiten ari dira beren lehen diskoa aurkezteko: *Animal Blues*.

23 LARUNBATA

ANAUT**MENDIGORRIA / 21:00 / FORUEN PLAZA**

Disko berria aurkeztuko du: *Time Goes On*. Hamabi kantu dira, ardatz nagusi bat dutenak: denboraren joanak ezinbestez ekartzen dituen aldaketak. Modu analogikoan grabatu dute, guztira 16 musikariak; tartean maila handikoak daude, adibidez Jon Cleary edo Antonio Serrano. *Time Goes On* lana funtsezko urrats bat da bandaren ibilbidearentzat. Sustrai amerikarreko musikan sakontzen du, eta folk eta rock musiken eraginak eransten dizkio Anauten Rhythm&Blues soinuari. Bandak tarte atsegin bat eskaini nahi die 140 lehen diskotik jarraitzen dioten zaleei, eta erakarri egin nahi ditu taldearen berri ez dutenak. Argudio sendoak erabiltzen ditu horretarako: kantu onak, soinu epela, eta feeling eta energiaren arteko nahasketak; horren guztiaren ondorioz, musika amerikarraren ordekarri nagusia dira Espainian.

21 OSTEGUNA

THE CLAMS**CORELLA / 21:30 / FORUEN PLAZA**

Rhythm&Soul musikaren emakume-aurpegia direla diote haiek, baina askoz gehiago ere badira. *The Clams* taldea osatzen duten zazpi emakumeek musika beltzaren eztanda ikaragarri bat eskaintzen dute; soul kutsuko ukituak eta orkestra-bluesa, eta jazz edo sewing estiloetako keinu ausartak ere bai.

22 OSTIRALA

ANIMAL BLUES**BERA / 21:00 / UDALETXE PLAZA**

Musika beltzeko talde nafar bat da *AnimalBlues*, erreferentzia nagusi gisa blues musika erabiltzen duena. Honako hauek dira taldeko kideak: Jaime Alvarelllos Correcher (ahotsa



28 OSTEGUNA

LA REINA FLOWER

RIBAFORADA / 22:00 / CABALLERO TEMPLARIOS (SAKANA)

Honako hau dira usain gozoko proiektu berri horren kideak: Marife Cortes (No More Blues; Feel; Barricada; Enemigos Intimos), Arantxa Ojeta (La Prima Janis; Barricada), Selva Baron (El Drogas, Selva eta Saretzky; Horthy; Queen Symphony Rhapsody).

Reina Flower taldean, ahots-lan izugarri fina eta landua egiten dute 3 abeslariak, ukitu magikoak ere emanez. Formatu akustiko batean, tema klasiko eta gogoangarrien interpretazioa esperientzia atsegin bilakatzen da, sentazio onez betea, eta, horretan, musika eta entzuleria dar-dar hunkigarrian aritzen dira arima eta bihotzeko ukituekin batera.

Ikuskizun bariatua da, Blues hegoaldekoenetik Folk irlandarreneiraino joaten dena, Reggae eta Rock estiloetatik igarota. Zuzeneko emanaldietan, maitasun eta pasiozko petaloak eskaintzen dituzte, Loreen Erregina bizi, eta abeslari zein ameslari aritzen den lorategi zoragarritik barna igaro bitartean.

29 OSTIRALA

THE GOOD TIME ROLLERS

LEKUNBERRI / 20:00 / PLAZA

Ez da musika ona lortzen musikari onak biltzen diren guztietan. Baina Iñaki Rodríguez, Luisa Brito, Hilario Rodeiro, Alberto Sanzol, Ramón García eta Terela Gradín abeslaria talde batean bildu ziren entzuleria dantzan jartzeko asmoz, eta hori ezin gaizki atera. Energia bizi-bizia, ibilbide profesional handiak eta ideia garbiak: Swing, Boogie, Rhythm&Blues, Rock and Roll.... Nueva Orleansetik Chicagora bidaia eginda, Iruñetik sartu du



estatuko agertokian The Good Time Rollers taldeak musika dantzagarriena; izan ere, duela gutxi arte Katalunian ez beste inon gerta zitekeen halakorik: Hoppers taldeak pistatik transmititzen dien atmosfera arnasten du talde horrek agertokian, eta benetako festa bilakatzen du bere emanaldi bakoitzean.

30 LARUNBATA

NAHEBA

LOS ARCOS / 21:00 / PLAZA

NaHeBa Kantabriako talde bat da, folk-musika egiten duena; 2004an fundatu zen, eta bere sorterriko temen konposizioan eta moldaketan oinarritzen du bere lana. NaHeBa taldearen soinua akustikoa da funtsean, eta, besteak beste, gaita, biolin eta txirula tradizionalak erabiltzen ditu horretarako, gitarra, bouzoukia eta bodhrama instrumentuekin batera; era horretan, soinu homogeneo eta pertsonala lortzen dute, herri temak funditu baitira taldearen kantu propioekin eta abesti zein melodia tradizionalen konposizio eta moldaketekin.



28 OG.

FONTELLAS

Bisita Artajo olio-errotara

18:00 / 1 h. 30'

Ribaforadako Udala Olio-errotara.

Zaragozako errepidea (A-68), 102 km.

Prezioa: doakoa

Parte-hartzaileak: 50

Erreserbak:

Ribaforadako Udala

T. 948 844 305

deportes@ribaforada.es

ASTITZ

Bisita gidatua

Mendukiloko Leizera

17:30 / 1 h. 30'

Leizeko harrera-lekua

Prezioa: 5€

Parte-hartzaileak: 40

Berokia eta oinetako erosok

Erreserbak:

Mendukiloko Leizea

T. 948 396 095 /

608 623 604

mendukilo@mendukilo.com

29 OR.

ARALARKO SAN MIGEL

Senderismoa: "Aralarko paisaia eta trikuharriak"

15:30 / 3 h.

Aralarko San Migel

santutegia

Prezioa: 10€

Parte-hartzaileak: 15

Trekking oinetakoak, arropa erosoa eta ura

Erreserbak:

Mirua

T. 608 560 369

info@mirua.com

UZTAILA



4 OG.

OTSAGABIABisita gidatua
Otsagabiatik18:30 / 1 h. 30'
Prezioa: helduak 1€,
urtetik beherakoak: doan
Parte-hartzaileak: 35Abodi-Ochagavía:
"Ibilbidea: Irati, goitik
begiratuta"10:00 / 3 h.
Bar Abodi-Eski-estazioa.
NA-2011 PK 7 errep.Prezioa: doakoa
Parte-hartzaileak: 35
Ibiltzeko oinetako
egokiak, arropa eroso
(kolore apalekoa), txanoa,
uraErreserbak:
Otsagabiako turismo-
bulegoa
T. 948 890 641
oit.ochagavia@navarra.es

5 OR.

ELIZONDOBisita gidatua Elizondora:
"Trilogía de Baztan"17:30 / 2 h. 30'
Foruen plaza
Prezioa: 10€
Parte-hartzaileak: 40
Oinetako erosoakErreserbak:
Beatriz eta Juan Mari
T. 670 336 232
visita-elguardianinvisible@
hotmail.com

ABUZZTUA

6 LR.

ORGI-LIZASO

Bisita gidatua Orgiko hariztira

11:00 / 1 h. 30'
Orgiko informazio-gunea
Prezioa: helduak 3€,
haurrak (6 urtetik gora) 1,5€
Parte-hartzaileak: 16 máx/guia
Oinetako erosoak, txanoa, ura,
eulien aurkakoa eta prismatikoakErreserbak:
Garrapo
T. 620 955 454
edurne@garrapo.com**LIZASO**

Bisita Ultzama eskola-etxaldera

11:00 eta 17:30 / 1 h.
Prezioa: helduak 5€,
haurrak 3€
Parte-hartzaileak: 25
Ekarri aurreko egunetako ogia,
animaliei ematekoErreserbak:
Granja Escuela Ultzama
T. 629 126 499
info@granjaescuelaultzama.com

4 OSTEGUNA

CORQUIÉU**OTSAGABIA / 22:00 / PLAZA**

Folk-musika egiten duen talde asturiar horrek 1997an hasi zuen bere ibilbide profesionala Ribeseyan, eta Asturias-ko tema tradizionalak eta konposizio propioek osatzen dute taldearen errepertorioa. Ahots-temak eta tema instrumental guztiz bizkorak nahastea da taldearen ezaugarri nagusia. Honakoak dira bandako kideak gaur egun: Roberto Suárez (gaita asturiarra, whistlesa eta koruak), Pablo Valdés (gitarra akustikoa) Lluci González (ahotsa), Blanca Sáenz de Miera (biolina), Daniel Álvarez (txirula), Jorge Ibáñez (bouzoukia eta pedal baxua).

5 OSTIRALA

**MEETING POINT
FUERADELEJE****ELIZONDO / 21:00 / FORUEN PLAZA**

Meeting point dantza garaikideko pieza bat da, bi dantzarientzat egina; obraren malgutasuna bilatzen du ohikoak ez diren beste agertoki



batzuetara ere moldatu ahal izateko. Mugimenduaren dramaturgia ikus-entzunezkoen partean oinarritzen da; horretan, koreografiaren osagarri, protagonisten testuak eta irudiak erreproduzitzen dira, baita film-zatiak ere, eszenak konektatu edo indartzeari begira.



6 LARUNBATA

**HUTSUN TXALAPARTA
TALDEA****LIZASO / 12:30 / ORGIKO HARIZTIA**

"Ibilbide bat proposatzen dugu txalapartaren bilakaera ikusteko, bere jatorritik hasi eta forma moderno eta garaikideenataraino. Erakusketa didaktikoa da, hurbiltze historiko eta kultural bat oinarritzko erritmo tradizio-naletara. Erritmo horiek non, noiz, nola eta zergatik sortu ziren azalduko dugu, eta jotzen hasiko gara jarraian. Txalaparta tradizionalaren berezko pultsuari ekarpen berriak egiten dizkiogu: teknika berriak; kolpe berriak; zur mota desberdinak, bestelako material batzuekin nahastean ditugunak, hala nola harri, burdina, bidoi, eta abarrek. Modu horretan, berezko sonoritate bat lortzen da, galdera-erantzunaren jolasen eta inprobisazioaren jolasaren garrantzia oinarritzen diren sormen-lan originalak. Unibertso erritmiko, tinbriko eta melodikoa guztiz berriaren murgilduko gara".



11 OSTEGUNA

NAT SIMONS

VIANA / 20:30 / SAN PEDROKO HONDAKINAK

Nat Simons Folk-Rock musikako abeslari eta konpositore espainiarra da, eta oso kontuan hartzeko moduko erreferentzia gure herrialdean egiten den amerikar musikaren barnean. *Home On High* diskoarekin eta berriki kaleratutako *Trouble man* EParekin arrakasta handiak aurkezten eta biltzen emandako ibilbide luze baten ondoren, bere hirugarren diskoa grabatzeari ekin dio Nat Simonsek.

12 OSTIRALA

PRINTZESA ZELTA EUSKAL HERRIKO TXISTULARI ELKARTEA

IZABA / 20:30 / ANFITEATROA

Txistua, gaita eskoziarra, ahotsa eta



harpa, boddhram gitarrak, perkusioa eta teklatuak elkarren osagarri dira kontzertu horretan; konposizio musikal berriak dira, egungo konpositoreei enkargatutakoak, baina betiere garai bateko musika tradizional zeltaren antzekoak.

Lamiak, Mari, Sugaar, Jaun Zuria, Bizkaiko Jauna, Zuri jauna, liho fina, huntz basatiak, bikingoak, bidaiak, itsasontziak, sugetzarra, ile horiak, gerlariak, jentilak, lainoa, itsasoa, olatu handia, zuhaitzak eta lantzak, larrua eta metala, gaita eta txistua... kondairak eta errealtatea bat eginda irudi kimeriko, epiko, sakon eta gozo, zoriontsu eta garratzetan, eta haien gainetik betiere printzesa zelta hegan, ihes egin zuena, bidaiatu zuena, denek etortzen ikusi eta sorbalden eta irrien gainean eraman zutena, amets egin zuena, eta ametsetan harri gorriak ikusi zituen.

13 LARUNBATA

IÑAKI DIÉGUEZ

XABIER / 12:00 / AUDITORIOA

Iñaki Diéguez akordeoi-jotzaileak *Birak* diskoko temak joko ditu Xabierren; Cirque du Soleil delakoan hiru urtean lan egin bitartean sortutako disko interesgarria dugu. Bertan, Brasilgo eta Ipar Amerikako musikariekin aritu zen elkarlanean, estilo eta esperientziak nahasita. Iñaki konposizioak sortuz joan zen, euskal musika, Brasilgoa eta Estatu Batuetakoa oso modu interesgarrian fusionatuta. *Birak* diskoak kulturen arteko gurutzatze hori islatzen du, bai eta hiru urteko bidaia batean ezagututako musikak eta eraginak ere: New Yorketik Torontora, Koreatik Yosemite, Bruselatik Salvador da Bahiara.

11 OG.

VIANA

Bisita gidatua alde historikora

12:00 y 18:00 / 1 h.
Turismo-bulegoa
Prezioa: 1,50€
10 gutxienez

Aldez aurretik erreserbatu behar da, einbestez:

Vianako
turismo-bulegoa
T. 948 446 302
turismoycultura@viana.es

**Bisita gidatua
"El Bordón" hegazti-behatokira**

10:00tik 14:00etara
eta 16:00tik 19:00 etara
/ 1 h.

Behatokia
(GPS: 42° 29' 24.92" N
02° 24' 18.18" W)
(UTM koor.: x: 548.892 /
y: 4.704.382)

Prezioa: doakoa
Parte-hartzaileak:
mugarik gabe
4,5 km-ko paseoa.
Arropa eta oinetako
egokiak, kolore
apalekoak, txanoa, ura
eta prismatikoak

Erreserbak:
Behatokia
T. 696 830 898

12 OR.

BURGI

Burgi, natura eta ondarea

11:00 / 3 h.
Burgiko zubia
Prezioa: 10€
Parte-hartzaileak: 20
Arropa eta oinetako
erosoak, ura, prismatikoak

Erreserbak:
Erronkariko
turismo-bulegoa
T. 948 475 256
oit.roncal@navarra.es

13 LR.

GALIPENTZU

Bisita gidatua Galipentzura

18:30 / 1 h. 30'
Herrirako sarreraren
aurrean
Prezioa: 4€ helduak
/ 2€ haurrak
Oinetako erosok

Erreserbak:
Gesartur
T. 948 877 075 /
622 305 052
info@gesartur.com

IRUNBERRI

Baltsa-jaitiera Irati ibaitik

15:30 / 3 h.
Irunberiko
igerilekuetako
aparkalekua
Prezioa: 10€
Interpretazio-paseoa.
Bainujantzia, xukadera
eta bustitzeko moduko
oinetakoak. 8 urtetik
gorakoentzat

Erreserbak:
Nattura
T. 948 131 044 /
671 247 596
info@nattura.com

ABUZZTUA



18 OG.

GARES

Bisita gidatua alde historikora

18:00 / 1 h. 30'
Gurutzearen eliza
Prezioa: 1€
Parte-hartzaileak: 50Erreserbak:
Garesko turismo-
bulegoa
T. 948 341 301 /
659 187 680
turismo@
puentelareina-gares.es

19 OR.

ZANGOZA

Bisita Casa Jenaro museora

12:00 y 18:30 / 2 h.
Casa Jenaro.
C/ I. Gil de Jaz, 16
Prezioa: doakoa
Parte-hartzaileak: 12Erreserbak:
Casa Jenaro
T. 645 128 017

IRUNBERRI

Bisita Joseneara: senda-belarrak

10:00 y 18:00 / 1 h. 30'
Finca Bordablanca
Prezioa: 3€
Parte-hartzaileak: 15
Oinetako erosoakErreserbak:
Josenea
T. 948 880 696
visitas@josenea.com

20 LR.

ABARTZUA

Bisita Urrizaga gaztandegira

18:00 / 1 h.
Prezioa: 4€
Parte-hartzaileak: 30Erreserbak:
Urrizaga gaztandegia
T. 948 520 109
urrizaga@terra.es

Bisita gidatua Pacharán Azanza upategietar

12:00 / 1 h.
Abartzuzako upategia
Prezioa: 4€
Parte-hartzaileak: 50Aldez aurretik
erreserbatu behar da:
T. 948 520 040
licoresazanza@
llanosmail.com

ABUZZTUA



18 OSTEGUNA

THE ICER COMPANY

GARES / 20:30 / MENA PLAZA

Talde gaztea bada ere, The Icer Company taldeak esperientzia sendoa du, eta horixe erakusten du bai agertokian, bai konposizioetan, bai musika bizitzeko moduan. Ur abisal pertsonaletara egindako bidaia izaten hasi zena garatuz joan eta benetako Pop-Rock dinamikoaren proposamen musikal intentsua eskaintzen digu taldeak orain; izan ere, irabazle izan ziren 2014ko topaketetan. Bikain interpretatuta, eraman egiten zaitu soinu horrek.

19 OSTIRALA

PINK TONES

ZANGOZA / 23:00 / ARCADAS PLAZA

Pink Tones taldeak *On The Wing Tour* bira berria aurkezten du; Pink Floyd taldearen obra musikalari egindako omenaldia da. 12 urtetik gorako bideak

emandako esperientzia eta konfiantzarekin ekiten dio Pink Tones taldeak *On The Wing Tour* birari, baina lehen eguneko ilusio eta gogo berberarekin. Tema berriak, moldaketa berriak eta etengabe eboluzionatzen ari den ikus-kizun berritu bat.

On The Wing biraren kontzertuak denboran egindako bidaia dira, ia 3 orduko "hegal" bat, Pink Floyd taldearen -xx. mendeko banda sortzaileenak bat- diskografian barrena egindakoa. *On The Wing Tour* 2016 bira, Pink Floyd huts-hutsa.

20 LARUNBATA

CORAL IN TEMPORE ABESBATZA

SAN JOSÉ ABESBATZA

IRANTZUKO MONASTERIOA / 12:00 / ELIZA

Abesbatzak eta bere talde instrumentalak azaleko ibilbide bat egiten dute Karl Jenkins konpositore galestarren konposizio garrantzitsuenetan barna. Edertasun fineko obrak dira, hainbat erritmo eta kultura, musika konposatzeko eta adierazteko beste forma bat erakusten dizkigutenak, gaurkoagoa. Obren hautaketa horretan erabilitako lengoia musika berri-zailea da eta hainbat gai fusionatzen ditu, hala nola melodia eta erritmoak, mendebaldeko eta ekialdeko testu tradizionalak -erlijio desberdinetakoak-, baita naturari, urtar-aldaketari edo fenomeno naturalei lotutako gaiak ere.





25 OSTEGUNA

J,J,Q HIRUKOTEA

DONAMARIA / 20:00 / JAUREGIA DORREA

Josetxo Goia-Arribe –saxuak–, Quique Simón –pianoa– eta José María Pastor –bateria eta perkusioa– dira talde horretako kideak; azkeneko biek lehen-bizikoari “hitzordu itsu” baten gisara planteatutako topaketa musikal baten ondorioz sortu zen hirukotea. Espainiako inprobisazioaren esparruan erreferentzia diren 3 musikari horien ibilbidean izandako esperientzia horrek beste urrats kualitatibo bat dakarkie haien ibilbideei. xxi. mendeko musika fresko-freskoa, atzerako begirada zehatzik gabea, hirukote ausart eta trangresore horrena.

26 OSTIRALA

FETEN FETEN

ARTAXOA / 20:30 / QUINTA PARKEA

Fetén Fetén taldeak musika tradizio-nalaren eta dantzarako herri musikaren gaineko irakurketa garaikide bat eskaintzen du; izan ere, genero horiek ditu inspirazio-iturri, eta haiei eskaini nahi die omenaldi bat irudimena eta sormena bandera gisa eramanez. Jorge eta Diego bestelako instrumentuen zale amorratuak dira; izan ere, ohikoenez gainera, harritzeko moduko beste batzuk ere jotzen dituzte, hala

nola zerrotea, tronpeta-biolina, bibran-doneona eta aulki-txirula.

27 LARUNBATA

AIEGIKO CAMINO DE SANTIAGO ABESBATZA

LEIREKO MONASTERIOA / 19:45 / ELIZA

1996an fundatu zuen José M^a Chascok koru-musika bultzatzeko asmoz, Aiegin eta inguruan jende anitz baitzegoen abesbatza batean aritzeko irrikan. Errenazimendutik xx. menderainoko musika sartu du bere erreperatorioan, arreta berezia jarritz musika sakratuan. Bere ibilbidean, Nafarroako toki askotan jo izan du koruak, eta, halaber, Pasaia-Donibaneko musikaldian eta Madrilgo nafarren sanferminetan ere jo izan du. Maiz eskatzen diote Lizarran eta Estellerrian egiten diren ekitaldi musikaletara –kulturalak zein erlijiosoak– joateko; horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke: Donejakue bidearen lagunak elkarrekin antolatutako Eguberrietako kontzertuak, Iratzeko monasterioaren udazkeneko koru-zikloak –horien antolatzaileak ere bada korua–, merkatarien Erdi Aroko astearen kontzertuak, Almudi kolektibo kulturalak sustatutako kontzertuak –fundatu zirenetik hartzen du parte horietan–, eta abar.



25 OG.

BEINTZA-LABAIEN

Bisita ehun urtetik gorako gaztainadira
18:00 / 1 h. 30'
Beintza-Labaiengo aterpetxea
Prezioa: 6€
Parte-hartzaileak: 20 gehienez, 4 pax gutxienez

Erreserbak:
Orbela. Mikel Albisu
T. 659 477 396
info@orbela-beintza.com
(bezperako 20:00ak arte eman daiteke izena)

26 OR.

ARTAXONA

Bisita Artaxonako zerkora eta pasta-dastaketa
18:00 / 1 h. 45'
Turismoko informazio-gunea
Prezioa: 3,5€
Parte-hartzaileak: 50

Erreserbak:
Remagua
Servicios Turísticos
T. 653 196 714 / 638 557 711
cercodartajona@yahoo.es

27 LR.

LEIRE

Bisita gidatua monasteriora eta kaba- zein kabiak-dastaketa
18:00 / 1 h. 15'
Harrera-lekua: bisitak-denda
Prezioa: helduak 3,50€, haurrak 1,50€ (6-12 urte)
Parte-hartzaileak: 25

Erreserbak:
Leireko monasterioa
T. 948 884 150
visitas@monasteriodeleyre.com

ABUZZTUA



1 OG.

LODOSA

Bisita soka-muturrari buruz

18:00 / 1 h. 30'
Udaletxeko arkupea
Prezioa: doakoa

Erreserbak:
Udala
T. 948 693 642
desarrollolocal@lodos.es

2 OR.

AGOITZ

Bisita gidatua San Migel elizara

17:30tik 19:30etara / 30'
Elizako atea
Prezioa: 1€
Parte-hartzaileak:
10 pertsona gutxienez

Aldez aurretik
erreserbatu behar da:
Agoizko Udala
T. 637 448 107
prepirineo@cederna.es

IRAILA



1 OSTEGUNA

KORRONTZI**LODOSA / 20:00 / ESPAINIA PLAZA-PASEALEKUA**

Trikitiak garai batean interpretatutako erritmoak berritu eta eguneratu nahi ditu Korrontzi taldeak. Helburu berritzaile horretan, Oinkari Dantza Taldearekin bat egin, eta *Infernuko hauspoa* ikuskizuna sortu zuten. Euskal folk-musika eta bere dantza eta tradizioak fusionatzen dira lan horretan, batetik, soinuak, dantza tradizionalak eta ko-reografiak eta, bestetik, eragin garaikideak batuz. Ikuskizun hori elkargune, fusio, batura eta mestizaje hutsa da, dantza musikatuen zaparrada ederra.

2 OSTIRALA

SHIBA**AGOITZ / 22:00 / KULTURA ETXEA**

Give Me All! Stefanie Ringes, Lions in Love taldeko kantari ospetsua izan zen, bai eta arrisku handiko proiektu musikal batzuetako protagonista ere –La Flamme edo Shiva Sound, adibidez–; bada, oraingoan agertokietan aritzeko irrika eta reggae musikako bandekin aritzeko gogo berreskuratutako Shiba talde berriarekin eta dis-

tira handiko diskoarekin: *Give Me All*. Zuzeneko emanaldi zirraragarria da, ska, rocksteady, reggae eta soul musiketako ukituekin, betiere bere ahots suhar eta sendoaren bereizgarriarekin. Den-dena nahi du oraingoan!

3 LARUNBATA

BURLATAKO SAN BLAS ABESBATZA**LA OLIVAKO MONASTERIOA / 19:00 / ELIZA**

1983an sortu zen Burlatan izen berbera duen parrokiaren itzalean, parrokia horren eginkizun liturgikoak edertze aldera. Horrela, lan horretan aritu ziren hasierako urteetan, harik eta, denbora bat iraganik, San Blas parrokiaren jardueretatik independizatu zen arte –nolabait esateagatik–; harrezkero, ia mezetan eta festa solemneetan baino ez dira aritzen. Era berean, Burlatan kulturaren arloan egiten diren jarduera guztietan hatzen du parte, eta, bidenabar esanda, asko eta kalitate handikoak izaten dira horiek. Halaber, maiz aritu izan da Nafarroako Gobernuak antolatutako Cultur programetan, baita Nafarroako Abesbatzen Federazioak antolatutako beste jarduera batzuetan ere, horren kidea baita. Hilarión Eslava musika-astea sortu izana da, agian, Burlatako bizitza musikal eta kulturalari egindako ekarpen nagusia; urtero egiten da, azaroan, eta etenik gabe egin izan da, 1993tik.





8 OSTEGUNA

JO & SWISS KNIFE

ETXARRI ARANATZ / 19:30 / PLAZA

2014. urtearen erdialdera sortu zen taldea country amerikar musikaren disko bat grabatzeko, baina haiek sortutako temek osatutakoa. 2015. urtearen hasieran, *Music From Small Pink* argitaratu zuten, beren lehen diskoa, eta, orduz geroztik, etengabe aritu dira kontzertuak eskaintzen. Joan zen udan, bira txiki bat egin zuten Frantzia, eta, geroago, etxera itzuli ziren Burlatako Blues Nazioarteko jaialdian aritzeko. Hilabete gutxian ospe handiko artistekin batera aritu dira agertokian, besteak beste Jeb Rault edo Mr. Sipp (The Mississippi Blues Child) handiekin. Zuzeneko emanaldietan, Amerika sakonean 30eko hamarkadan egiten zen soinua defendatzen dute, baina modu zinez freskoan eskainita.

9 OSTIRALA

BONI

SAN ADRIAN / 22:00 / FRUCTUOSO MUERZA PLAZA

Gori-goria, milaka kontzertutako harrrabotsean elikatutako sugar baten emaitza gisa, Fco. Javier Hernández, Boni, aurrera ari da bere ibilbide musikalean beste urrats bat eginez; Incandescente deitzen da Bonik sinatutako 19 tema biltzen dituen diskoa,

eta, bakarrik aritzen dela esatea bidegabea bada ere, egia da bera dela bertan eskaintzen den guztiaren erantzule bakarra. 30 urte luzez Barricada taldeko ahots bereizi bat izan den rockzale horrek disko berri bat aurkeztu digu, batere konplexurik gabea; ez du iraginarekin hausteko asmorik agertzen, eta aterabide gisa erabiltzen du lan hori bere ezinegon musikal guztiak askatzeko, rockzale huts baten alderdi nagusiak erakutsiz.

10 LARUNBATA

TRAVELLING' BROTHERS BIG BAND

TUTERA / 20:30 / GAZTAMBIDE ANTZOKIA

PREZIOA: 10€ ANFITEATROA, 12€ PLATEA

Hemen daude berriz ere, eta dagoeneko 7 dira, anaia bidaia nekazekin besapean disko berri bat dakartela, oraingo honetan Norwegian grabatua *One Day in Norway* izenburuarekin. Magnolia Route bira bukatuta –2 urte eman zituzten hartan, etenik gabe, 120 kontzertuak eskainiz 11 herrialdetan–, Bruselako European Blues Challenge lehiaketan irabazita, Memphisko International Blues Challenge lehiaketako finalistak izanda, eta entzuleen, programatzaileen eta kritikaren babesa jasota, disko berezia egiteko unea zen, eta, noski, azken urteotan blues europarraren panoraman ikusmin handi-handia piztu duen banda baten mailakoa.



8 OG.

ETXARRI ARANATZ

Bisita Enneco parkera (haritzia)

18:00 / 1 h.

Danbolintxulo parajea (Etxarriko kanpina)

Prezioa: doakoa

Erreserbak:

Enneco Parkea

T. 663 908 306

komunikazio@enneco.org

10 LR.

TUTERA

Paseoa Tuteratik

11:00 eta 18:00 / 2 h.

Monreal dorrea

Prezioa: 3€

Parte-hartzaileak: mugarik gabe

Erreserbak:


Udala

T. 948 417 100

turismo@tudela.es

IRAILA





ERAKUSKETAK

Artea ikusleei bizkar emanda sor daiteke, edo, aitzitik, bidelagun gisa har dezake ikuslea. Bigarren bidearen aldeko apustua egiten du arte garai-kidearen udako programa honek, eta konfiantza handia jartzen du artistaren eta ikusleriaren arteko topaketa aberasgarrian, bai eta ikusleak lanaren kolaboratzaile gisa duen paperean ere. Horrela, Bertizko parkean, Maite Ortegak eta Mikel R. Nietok obra berri bat sortuko dute bertatik, bertako

geografia espezifikotik, klimatik eta biztanleengandik, eta, hain zuzen ere, bizilagunak inplikatu dituzten sormen-prozesuan. Corellan, beste bi artista, Álvaro Gil eta Natacha Sansoz, solasean ariko dira beren lanen bidez eta diziplina desberdinetatik herritarak kreatzaile gisa duen rolari buruz. Azkenik, Agoitzen, Pep Carriók jolas bat proposatuko die bertaratutakoei: obra bukatu egin beharko dute, kolorea emanez.



AZAL BERRIA

Álvaro Gil eta Natacha Sansoz egileen erakusketa
Komisarioa: Alexandra Baurès

CORELLAKO KULTURA ETXEA / UZTAILAREN 1ETIK 31RA

Azala, gorputzak eta objektuak biltzen dituen, ikusmenaren eta ukimenaren aurrean aurkeztzen den geruza da, haiei materialtasuna eta esanahia ematen dizkiena. Horrela, itxuraldatuta, jantzi berriarekin, nortasun berria ematen dio pertsonari, eta, objektu baten kasuan, pertsonalizatu egiten du, eta paregabe bihurtu. Ideia hori funtsezkoa da Álvaro Gil (Corella, 1986) eta Natacha Sansoz (Carcasona, Frantzia, 1981) egileen lan artistikoan.

Horrela, Álvaro Gilek kustomizazio-teknikak erabiltzen ditu beren eskultura geometrikoetan, berez automobilgintza-aren esparrukoak badira ere. Natacha Sansozek, berriz, jantzi-arte eta performancetik aztertzen ditu bai uniformearen zurruntasuna, bai jantzi propio bat egiteko aukera. Erakusketa horretan, haien lanak elkartu, eta umore eta zentzu kritiko handiko elkarriketa bat sortuko dute lanen bidez.

LORATEGI BAT LORATEGIAN

In-situ ariko dira Maite Ortega eta Mikel R. Nieto
Komisarioa: Alexandra Baurès

BERTIZKO JAURERRIAREN PARKE NATURALEAN / LORATEGI HISTORIKOA / UZTAILAREN 20TIK IRAILAREN 4RA ARTE

Lorategi eder horretara iritsiko dira. Lehenbiziko aldiz ikusiko dute toki hori. Inguru hurbileko pertsonekin bildu, eta haien istorioak ezagutuko dituzte. Hostoak, adaxkak, soinuak eta argazkiak bilduko dituzte.

Maite Ortega (Yecla, Murtzia, 1989) besteen argazkietatik abiatzen da, haiek hari batez edo ebakinez itxuraldatu ondoren. Erakusketa-aretoa hartuko duen familia-zuhaitz batean batuko ditu lorategia eta memoria.

Mikel R. Nietok (Donostia, 1980) soinuak lantzen du modu artistiko batean, eta egoera espezifikoak sortzen ditu. Leku bakoitzeko soinu-nortasunaren mugak ezagutzea du helburu. Soinuak grabatuko ditu lorategian eta inguruan, agerian utziko du ezkutuan dagoena, antzeman ezin dena. Lortutako soinu-instalazioek lorategiko eraikin batzuk – interes arkitektoniko handikoak – inbadituko dituzte. Sormen-prozesuaren bukaeran, lorategi berri bat agertuko da, lorategian bertan.





MARRAZ BESTALDEAN

Pep Carrió instalazioa
Komisarioa: Alexandra Baurès

AGOIZKO KULTURA ETXEA / ABUZTUAREN 4TIK 3IRA

Pep Carrió (Palma, 1963) ilustratzailea, editorea, aurkitutako objektuen bildumagilea eta eskultorea da, besteak beste. Telefonoz hitz egiten ari denean, etengabe marrazten du. Jarduera automatiko horretan sortzen diren irudiak errotuladore beltz batez eginak dira, eta, antza, ez dute hasierarik ez bukaerarik. Giza irudiak, bisaiak, txoriak, arrainak, adarrak, ibaiak eta loreak dira kontakizun inkontziente, fantasiatzko

paisaia baten osagarri. Marraz bestaldean, ikuslea dago. Artistak koloreko errotuladore bat eskaini, eta erronka bat proposatzen dio. Jarrera kontenplatiboa eta pasiboa alde batera uztea eta obran esku hartzea, marrazkia osatuz eta paisaia koloreztatuz. Egunak joan egunak etorri, murala eraldatuz joanen da bisitariek, haurrek eta helduek egindako ekarpenen ondorioz, eta amets berriak sortuko dira.

te, un paisaje fantástico. Al otro lado de la línea se encuentra el espectador. El artista le tiende un rotulador de color y le propone un reto. Que abandone su actitud contemplativa y pasiva e intervenga en la obra, completando el dibujo y añadiendo color al paisaje. Al hilo de los días, el mural se irá transformando con la aportación de los visitantes, niños y adultos, y surgirán nuevas ensorñaciones.

Pep Carrió (Palma de Mallorca, 1963) es ilustrador, editor, coleccionista de objetos encontrados y escultor, entre otras cosas. Cuando habla por teléfono, no deja de dibujar. Las ilustraciones que emergen de esta actividad automática están hechas de líneas trazadas con un rotulador negro que no parecen tener principio ni fin. Figuras humanas, rostros, pájaros, peces, ramas, ríos y flores conforman un relato inconsciente-

AL OTRO LADO DE LA LÍNEA

Instalación de Pep Carrió
Comisaria: Alexandra Baurès

CASA DE CULTURA DE AOIZ / DEL 4 AL 31 DE AGOSTO